

2017ko EKAINAREN 14ko UDALBATZARRA
PLENO DE 14 DE JUNIO DE 2017

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:

M^a ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO, IXONE TELLECHEA URANGA, AITOR ELEXPURU EGAÑA, MIKEL LERTXUNDI KORTA, AITOR IANTZI GOIENETXE, GERMAN CASTILLO LAZCANOTEGUI, JOSE MIGUEL GORRIA VICUÑA, JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS, RAQUEL QUIROGA TAPIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

Tokia: BERAko Herriko Etxea

Eguna: 2017-06-14

Ordua: 19:30

Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA

Día: 14-06-2017

Hora: 19:30

Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIAK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

2017.eko maiatzaren 11n egindako bilera-ren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.

Vista el acta de la sesión celebrada el día 11 de mayo de 2017, por unanimidad SE APRUEBA.

2.- IKASTETXEA HANDITZEKO RICARDO BAROJA IKASTETXE PUBLIKOKO ESKOLAZAINAREN ETXEAREN ERABILERA BESTE ERABILERETARA ALDATZEA.

2.- MODIFICACIÓN DEL USO DE VIVIENDA DE LA CASA DEL CONSERJE DEL COLEGIO PUBLICO RICARDO BAROJA A OTROS USOS PARA AMPLIACIÓN DEL COLEGIO PÚBLICO.

Idazkariak gaia azaldu du eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:

La Secretaria explica el expediente y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

1186/2017 Funtzio Publikoko Zuzendari Nagusiaren Ebazpenaren bidez, Ricardo Baroja Ikastetxe Publikoko eskolazaina jubilatuko da 2017ko ekainaren 15etik aurrera.

Por Resolución 1186/2017 de la Directora General de Función Pública el conserje del Colegio Público Ricardo Baroja se jubilará a partir del próximo 15 de junio de 2017.

Hutsa geldituko den lanpostua berriro betetzeko egin den deialdian ikastetxeko etxebizitzan bizitzeko betebeharra kendu da, beraz, aipatu etxebizitza hutsa geldituko da.

En la convocatoria para la provisión del puesto que quedará vacante no se ha establecido la obligación de residencia en el centro escolar por lo que la citada vivienda quedará vacía.

Ikastetxe Publikoko Zuzendaritza Udalari adierazi dio etxebizitza hori ikastetxe bera haunditzeko nahi dutela. Hain zuzen ere, jangela handitu eta erabilera anitzetako gela sortzea.

La Dirección del Colegio Público ha manifestado al Ayuntamiento el deseo de aprovechar la vivienda para ampliar el centro escolar. En concreto, ampliación del comedor-usos múltiples creando otra sala de usos múltiples.

Horretarako, burutu behar diren obren aurrekontua eta planoak egin ditu udal arkitecto teknikoak, 2017ko maiatzakoa.

Para ello, se ha redactado un presupuesto y planos de las obras a realizar por parte del arquitecto técnico municipal de fecha mayo de 2017.

Hori dela eta, ERABAKI DUTE:

Por todo lo anterior, SE ACUERDA:

1) Egungo Ricardo Baroja Ikastetxe Publikoko eskolazainaren etxebizitzaren erabilez aldatzea, beraz, esparru hori ikastetxe bera handitzeko erabiltzea euren erabilertarako.

1) Modificar el uso actual de vivienda del conserje del Colegio Público Ricardo Baroja destinando la superficie de la misma a la ampliación del centro escolar para usos relacionados con el mismo.

2) Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuari eta Ricardo Baroja Ikastetxe Publikoko Zuzendaritzari bidaltzea behar diren ondorioetarako.

2) Remitir este acuerdo al Departamento de Educación del Gobierno de Navarra y a la Dirección del Colegio Público Ricardo Baroja a los efectos oportunos.

3.- SISTELEC SOLUCIONES DE TELECOMUNICACIONES S.L-ari HERRILURRA LAGATZEKO BALDINTZA PLEGUA ALDATZEA.

3.- MODIFICACIÓN PLIEGO CONDICIONES PARA LA CESIÓN TERRENO COMUNAL A SISTELEC SOLUCIONES DE TELECOMUNICACIONES S.L.

Alkateak baldintza plegu berria adosteko eginiko negoziaketa eta aldaketak azaldu ditu eta Idazkariak espedientearen prozedura. Horren ondotik, aho batez, honako erabaki hau hartu dute:

El Alcalde explica las negociaciones y cambios realizados para acordar el nuevo pliego de condiciones y la Secretaria el procedimiento. Tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

1995eko abenduaren 21ean Udalak eginiko bileran, Sistelec Soluciones de Telecomuni-

En sesión realizada el 21 de diciembre de 1995 el Ayuntamiento legalizó la cesión de un terreno

cacion sl enpresari lagatutako 100 m2tako herrilurra, 6. poligonoa, 69. lur-zatia (lehen 339 C), legeztatu zen.

Lagapen hau luzatzen joan da eta baldintza plegua ere aldatu egin du Udalak.

Azken baldintza plegua adostu zena 2009ko uztailaren 23an onartu zuen Udalak eta hilabete horren 28an sinatu zuten.

Irailaren 22ko 1669/2009 Landa Garapenerako Zuzendari Nagusiak emandako Ebazpenaren bidez Sistelec Soluciones de Telecomunicacion sl enpresari telekomunikazio ekipamendua instalatzeko 100 m2ko herrilurraren lurzattia (6. P, 69. L) okupatzeko baimendu zion Berako Udalari 7 urtetarako epearekin, luzagarriak.

Herrilur hori lagatzeko aipatu baldintza pleguaren 2. baldintzari jarraikiz, joan den urtean Udalak indarrean zegoen komenioa salatu egin zuen eta lagapen hori arautzen duen baldintza pleguaren aldaketa batzuk negoziatzen hasi zen.

Hori dela eta, harreman batzuk izan ondoren 2009ko uztailaren 23an onetsitako baldintza plegua aldatzea adostu dute.

Ikusirik, Sistelec Soluciones de Telecomunicacion sl enpresak eta Udalak negoziatutako komenio berriaren testua, baldintza plegu berria duena eta espedienteen dagoena.

ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako komenio berriaren testua, Sistelec Soluciones de Telecomunicacion sl enpresari telekomunikazio ekipamendua instalatzeko 100 m2ko herrilurraren lurzattia (6. P, 69. L) okupatzeko baldintza ple-

comunal de 100 m2 (polígono 6, parcela 69, antes 339 C) a la empresa Sistelec Soluciones de Telecomunicación sl.

Esta cesión ha sido objeto de diferentes prórrogas y el pliego de condiciones se ha ido modificando también.

El último pliego de condiciones que se acordó fue aprobado el 23 de julio por el Ayuntamiento y el 28 del mismo mes fue firmado.

Por Resolución 1669/2009, de 22 de septiembre, del Director General de Desarrollo Rural se autorizó al Ayuntamiento de Bera la ocupación de 100 metros cuadrados de la parcela comunal (P. 6, p. 69) para la instalación de equipamiento de telecomunicación a la empresa Sistelec Soluciones de Telecomunicación sl con un plazo de 7 años prorrogables.

De acuerdo a lo establecido en la condición 2ª pliego de condiciones para la cesión de dicho terreno comunal, el año pasado se denunció el convenio vigente y se iniciaron las negociaciones con la empresa citada para la modificación del pliego de condiciones que rige dicha cesión.

De este modo, después de diversos contactos han consensuado modificar el pliego de condiciones aprobado el 23 de julio de 2009.

Visto el texto del nuevo convenio negociado entre el Ayuntamiento y la empresa Sistelec Soluciones de Telecomunicación sl, que contiene un nuevo pliego de condiciones, el cual consta en el expediente.

SE ACUERDA:

1) Aprobar el nuevo texto del convenio que contiene el pliego de condiciones citado que regulará, en adelante, la ocupación de 100 metros cuadrados de la parcela comunal (P. 6, p. 69) para la instalación de equipamiento de telecomunicación

gu berria duena eta hemendik aurrera herrilur horren lagapena arautuko duena, onestea.

2) Erabaki hau Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuaren Herrilurren Atalari bidaltzea orain onetsi den baldintza pleguaren kopiarekin batera, berak baimentzeko.

3) Erabaki hau SISTELEC SOLUCIONES DE TELECOMUNICACIÓN S.L. enpresari bidaltzea. Aldi berean, adieraztea izapide-egintza denez ezin dela inolako errekursorik jarri.

4.- 3. POLIGONOKO 229. LURZATIAN HIRI-JARDUKETAKO PLAN BEREZIA (LEGIA 46), BERAKO UDAL PLAN OROKORRA ALDATZEN DUENA, BEHIN BETIKO ONESTEA.

Alkateak zertan datza aldaketa azaldu du eta Idazkariak prozedura. Horren ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, 3. poligonoko 229. lur-zatian (Legia karrika 46) Hiri-Jarduketako Plan Bereziaren espedientea, Berako Udal Plan Orokorren aldatzen duena.

Dokumentazioa: Hiri-Jarduketako Plan Berezia, lursaila 229, poligonoa 3, Berako Udal Planaren aldaketa, C. Rebollo Arbizu arkitektoak egina, 2016ko irailaren 25ean.

2017ko apirilaren 5ean Tokiko Gobernu Batzordeak espediente hau hasiera batez onartu zuen.

Jendaurreko epean ez dute alegaziorik aurkeztu.

Ikusirik, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea-

a la empresa Sistelec Soluciones de Telecomunicación sl .

2) Trasladar este acuerdo junto con una copia del pliego de condiciones ahora aprobado a la Sección de Comunales del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra para su autorización.

3) Remitir este acuerdo a la empresa SISTELEC SOLUCIONES DE TELECOMUNICACIÓN S.L., indicándole que por tratarse de un acto de mero trámite no cabe recurso alguno.

4.- APROBACIÓN DEFINITIVA PLAN ESPECIAL DE ACTUACIÓN URBANA (LEGIA 46), PARCELA 229, POLÍGONO 3, MODIFICACIÓN DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL DE BERA.

El Alcalde explica el contenido de la modificación y la Secretaria el procedimiento. Tras lo cual, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto expediente del Plan Especial de Actuación Urbana en la parcela 229 del polígono 3 (Legia karrika 46), modificación del Plan General Municipal de Bera.

Documentación: Plan Especial de Actuación Urbana, parcela 229, polígono 3. Modificación del Plan Municipal de Bera, redactado por el arquitecto C. Rebollo Arbizu, de fecha 25 de septiembre de 2016.

Con fecha 5 de abril de 2017 la Junta de Gobierno Local aprobó inicialmente este expediente.

En el plazo de exposición pública no se ha presentado alegación alguna.

Visto informe de Nasuvinsa de 21 de marzo de 2017 emitido de conformidad con el artículo 74.3

ren 74.3 artikuluari jarraikiz Nasuvinsak eginiko txostena, 2017ko martxoaren 21eko.

Ikusirik, Idazkaritzak 2017ko martxoaren 28an egindako txostena.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79.3, 74. eta 81.1) artikuluekin bat etorriz.

ERABAKI DUTE:

1) 3. poligonoko 229. lur-zatian (Legia karrrika 46) Hiri-Jarduketako Plan Berezia, Berako Udal Plan Orokorraren aldatzen duena, behin betiko onestea.

2) Erabaki hau interesatuei jakinaraztea.

3) Behin betiko onespén hau bai eta haien barreneko hirigintza arauak ere Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4) Erabaki hau nahiz onartutako Udal Hiri-Jarduketako Plan Berezi honen ale bat eta emandako txosten teknikoak Nafarroako Gobernuko Lurralde eta Paisaia Zerbitzuari bidaltzea.

5.- 2017KO LANGILEGOAREN PLANTILLA ALDATZEA.

Urtean zehar Udalak zenbat aldi bateko langileak kontratatzen ditu zerbitzu anitzetako lan desberdinetarako eta hauek udal langile finkoen kargu eta ardurapean egon behar dira.

Horregatik, zerbitzu anitzetako enkargatuak eta mendizainak plantillan “aginte” osagarria dute, %5a, jarrita (plantillan, zuzendaritza karguen osagarria).

de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Visto informe de Secretaría de 28 de marzo de 2017.

De acuerdo con lo establecido en los artículos 79.3), 74 y 81.1) de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

SE ACUERDA:

1) Aprobar definitivamente el Plan Especial de Actuación Urbana en la parcela 229 del polígono 3 (Legia karrrika 46), modificación del Plan General Municipal de Bera.

2) Notificar este acuerdo a las partes interesadas.

3) Publicar en el Boletín Oficial de Navarra esta aprobación definitiva, así como las normas urbanísticas contenidas en ella.

4) Trasladar este acuerdo junto con un ejemplar de la modificación aprobada e informes técnicos emitidos al Servicio de Territorio y Paisaje del Gobierno de Navarra.

5.- 2017KO LANGILEGOAREN PLANTILLA ALDATZEA.

A lo largo del año el Ayuntamiento contrata personal temporal para diferentes trabajos de servicios múltiples que queda al cargo y responsabilidad del personal municipal fijo.

Por ello, el encargado de servicios múltiples y el guardamontes tienen asignado en plantilla un complemento de “mando” del 5% (complemento de puesto directivo, en plantilla).

Kontuan hartuz, aldibateko langileak dau-denean zerbitzu anitzetako langileak ere holako langileak bere kargu eta ardurapean dituela.

ERABAKI DUTE:

1) Udal plantilla organikoa aldatzea eta zerbitzu anitzetako langilea den JOSE JAVIER TABERNA AGESTARI “aginte” osagarria (plantillan, zuzendaritza karguen osagarria), %5ekoa, jartzea.

2) Aipatu osagarri hori aurrean aldi bateko langileak kontratatu zirenetik aplikatuko da.

3) Aipatu plantilla organikoaren aldaketa, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan aurrez iragarrita, hamabost laneguneko epean jendaurrean egotea herritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak jar ditzaten.

4) Aurreko puntuan aipatzen den jendaurreko epea iragan ondoren, erreklamaziorik ez balego, plantilla organikoa behin betikoz onetsizat hartuko dela ohartaraztea.

5) Interesatuari erabaki hau jakinaraztea. Aldi berean, adieraztea izapide-egintza denez ezin dela inolako errekurtsorik jarri.

6.- MOZIOA, AURREKONTU EGONKORTASUNARI BURUZKO LEGEA INDARGABETZEA.

Alkateak mozioaren erabakiak irakurri ditu eta, aho batez, mozioa onartu dute honako testua izanik:

Apirilaren 27ko Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak, Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua garatzen duenak, hiru zerga-arau ezartzen ditu, nahitaez bete

Teniendo en cuenta que cuando hay personal temporal contratado también el empleado de servicios múltiples tiene trabajadores/as a su cuenta y responsabilidad.

SE ACUERDA:

1) Modificar la plantilla orgánica municipal y establecer al empleado de servicios múltiples JOSE JAVIER TABERNA AGESTA el complemento de “mando” (complemento de puesto directivo, en plantilla) del 5%.

2) El citado complemento se le aplicará desde que se contrató este año al personal temporal.

3) Exponer esta modificación de la plantilla orgánica en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios, a fin de que los vecinos, vecinas, interesados e interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

4) Indicar que, si no se formularen reclamaciones, la plantilla orgánica se entenderá aprobada definitivamente, una vez transcurrido el periodo de exposición pública señalado en el punto anterior.

5) Trasladar este acuerdo al interesado, indicándole que por tratarse de un acto de mero trámite no cabe recurso alguno.

6.- MOCIÓN, DEROGACIÓN DE LA LEY DE ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA.

El Alcalde lee los puntos de la moción y, por unanimidad, aprueban la moción siendo el texto del siguiente:

La Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera -que desarrolla el artículo 135 de la Constitución Española- recoge tres reglas fiscales de obligado cumplimiento: estabilidad o equilibrio presupuestario, sostenibili-

beharrekoak: aurrekontu-oreka edo –egonkortasuna, finantza-iraunkortasuna edo zorraren muga eta gastu-araua. Legeak, besteak beste, dio Nafarroako toki-entitateek aurrekontu-oreka edo superabita edukitze behar dutela, eta superabita erabiliko dutela zorraren maila gutxitzeko. Gerora, aldatu egin zen xedapen hori, udalei zenbait betekizun betetzea posible egiteko eta superabitaren parte bat erabil zezaten finantzaz bezainbatean jasagarriak diren inbertsio-etarako. Inbertsio horiek ez dituzte ezein kasutan ere udalerrien eta herritarren beharrak asetzen.

Legeak aipatzen duen gastu-arauari dagokionez, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoak dio ezin izanen dela gainditu estatu espainiarraren ekonomiak epe ertainean duen BPGren hazkundearen erreferentzia-tasa, eta ehuneko 2,2 ezartzen du gastu konputagarriaren hazkunde-tasa gisara 2017rako.

Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legearen aplikazioak eta horren garapenak berekin dakartzan mugak zuzenean jotzen dute Tokiko Entitateen kontra, haien eskumenen eta izaeraren beraren kontra, eta kolpe ezin latzagoa ematen diote municipalismoari. Legeak izaera birzentralizatzailea dauka, eta herritarren zerbitzura dauden administrazio ezberdinen jarduna gutxitu eta mugatzen du, halako moduz non udal asko praktikan esku-hartuak diren, eta gaitasunik gabe geratzen diren, herritarren premia handieneko beharrak asetzeko.

Krisiaren aitzakiaz, oztopoak jarri dira tokiko gobernuek ez dezaten plantilla handitu behar besteko langileez, gero eta handiagoak diren desparekotasunei aurre egiteko, aterpe-premia asetzeko, modernizatzeko eta abarretarako. Eta, milioietako

lidad financiera o límite de deuda y regla de gasto. La ley, entre otras cuestiones, señala que las entidades locales de Navarra deberán mantener una posición de equilibrio o superávit presupuestario y que dicho superávit se destinará a reducir el nivel de endeudamiento. Posteriormente, se modificó esta disposición para permitir a los Ayuntamientos que cumplieren una serie de requisitos y destinaran una parte del superávit a inversiones financieramente sostenibles. Unas inversiones que en ningún caso dan salida a las necesidades de los municipios y al de la ciudadanía en su conjunto.

En cuanto a la regla de gasto a la que se hace referencia en la Ley, la LOEPSF establece que la variación del gasto computable de las Corporaciones Locales no podrá superar la tasa de referencia de crecimiento del PIB a medio plazo de la economía del estado español, estableciendo el 2,2 por ciento como la tasa de crecimiento del gasto computable para 2017.

La aplicación de la Ley de Estabilidad Presupuestaria y las limitaciones que supone su desarrollo son un ataque frontal a las Entidades Locales, sus competencias y su propia existencia, provocando un golpe durísimo al municipalismo. Esta ley tiene un marcado carácter recentralizador, mermando y limitando en gran medida el funcionamiento de las distintas administraciones al servicio de la ciudadanía, quedando muchos ayuntamientos prácticamente intervenidos, y sin capacidad para atender las necesidades ciudadanas más urgentes.

Con la excusa de la crisis, se ha obstaculizado que los gobiernos locales puedan reforzar sus plantillas con el personal necesario para combatir las crecientes desigualdades, para luchar contra la emergencia habitacional, para modernizarse, etc. Y se les ha forzado a generar superávits mi-

superabidak sortzera behartuak izan dira, bankuei ordaintzeko, prekarizazioa eta desparekotasunak areagotzen diren bitartean.

Hartara, birzentralizazio-politikak eta murrerako austeritate-politikek eragindako murrizketa sistematikoak ikusita, beharrezkoa da udalei autonomia eta arautze-ahalmen handiagoa ematea, ez daitezen derrigorturik egon kutxan milioietako superabidak metatzera edo zorra ordaintzera bideratzera. Izan ere, Tokiko Entitateek beharrezko dituzte baliabide horiek, gizarte-kohesioari eusteko, tokiko ekoizpen-ehuna finkatzeko, langabezia murrizten duen jarduera ekonomikoa sortzeko eta egoera okerrean daudenei laguntza emateko.

Testuinguru horretan, Nafarroako Udalerriok lanean segitu behar dugu herri-borondatearen eta legearen arabera dagokigun autonomiaren alde. Horren adibiderik garbiena dugu Nafarroako Foru Komunitatearen eskumen-aldarri kapena eta –gara-pena, bere erakundeak administratu eta antolatzeko. Ez da onargarri Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legeak ahalmen hori usurpatzea eta Nafarroako tokiko erakundeak beren jardun egokia eta inbertsio-gaitasuna eragozten duten ekonomia- eta aurrekontu-irizpideen eraginpean ezartzea.

Horrenbestez, Lege horren onspen eta garapenarekin ukatu egiten zaie Nafarroako Tokiko Entitateei erakunde diren aldetik dagokien gaitasuna eta ekimena. Eta, noski, Estatuko gainerako entitate eta erakundeei ere. Eta hori ez da onargarria. Alderdiez eta ideologiez harago, kontua da gure erakundeek ahalmen ekonomikoa eta finantzarioa defendatzea. Jarrera bateragarria bilatu behar delakoan gaude, erakunde guztiak elkar hartzen dituen, lege hori aplikatzea eta gure udalerrietako herritarrak zigortzea ekidite aldera.

Horregatik guztiatik, BERAko Udaleko

llonarios que se destinan a pagar a los bancos mientras la precarización y las desigualdades se disparan.

Así pues, ante las políticas de recentralización y de los recortes sistemáticos derivados de políticas de austeridad extrema, es necesario que se dote de mayor autonomía y potestad normativa a los ayuntamientos, y que no se les obligue a acumular superávits millonarios en la caja o a destinarlos a amortizar deuda. Porque las Entidades Locales necesitan esos recursos para asegurar la cohesión social, para apuntalar el tejido productivo local, generar actividad económica que reduzca el desempleo y para ayudar a quienes peor lo están pasando.

En este contexto, los Municipios de Navarra debemos seguir trabajando en la defensa de la autonomía que les corresponde por voluntad popular y por Ley. La reivindicación y el desarrollo de las competencias que tiene la Comunidad Foral de Navarra para la administración y organización de sus propias instituciones, son la mejor muestra de ello. No es aceptable que la Ley de Estabilidad Presupuestaria usurpe esta potestad y someta a las entidades locales navarras a criterios económicos y presupuestarios que obstaculizan su buen funcionamiento y capacidad de inversión.

Por tanto, con la aprobación y desarrollo de esta Ley, a las Entidades Locales de Navarra se les niega la capacidad e iniciativa que les corresponde como institución. Y por supuesto, también a las entidades e instituciones del resto del Estado. Y esto no se debería aceptar. Más allá de partidos e ideologías, se trata de defender la potestad económica y financiera de nuestras instituciones. Entendemos que tiene que buscarse una posición común, compartida por todas las instituciones, para evitar que esta ley pueda seguir aplicándose y castigando a la ciudadanía de nuestros municipios.

Por todo ello el Pleno del Ayuntamiento de

Osoko bilkurak honako hau erabaki du:

- 1.- Madrilgo Gobernuak 2012ko apirilaren 12an onartu eta ezarri zuen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege organikoaren edukia errefusatzea.**
- 2.- Espainiako Gobernuak prematzea aurreratu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko legea ahal denik eta azkarren indargabetzeko hartu beharreko neurriak urgentziaz har ditzan.**
- 3.- Herritarrei eduki honen berri ematea eskura dituen bitartekoen bidez.**
- 4.- Akordio honen berri ematea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Parlamentuari eta Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioari.**

7.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

- 1) Bandoak: B10/2017tik B13/2017era.**
- 2) Ebazpenak: 2017ko maiatzaren 5eko 81. ebazpenetik 2017ko maiatzaren 7ko 117.era arte.**

Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa bete izanik, honako gai hau tratatu dute:

BERA adopta el siguiente acuerdo:

- 1.- Rechazar el contenido de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera aprobada y aplicada por el Gobierno de Madrid el 12 de abril del 2012.
- 2.- Instar al Gobierno español a adoptar urgentemente las medidas necesarias para derogar la Ley de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera en el espacio de tiempo más breve posible.
- 3.- Informar a la ciudadanía del contenido de este acuerdo a través de los medios a su alcance.
- 4.- Notificar este acuerdo a la Federación Navarra de Municipios y Concejos, Gobierno de Navarra, Parlamento de Navarra y al Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas.

7.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

- 1) Bandos: del /2017 al /2017.
- 2) Resoluciones: De la resolución nº de 2017 a la nº de 2017.

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:

8.- MOZIOA, ALTZATEKO BESTATAN GUARDIA ZIBILAREN JARRERA.

Alkateak mozioaren testua irakurri du. Horren ondotik adierazpen batzuk egin dituzte ea Altzateko bestetan Guardia Zibila ibili zen bezala ea egokia izan zen.

Juan Losak dio ziurtasun gero eta gehiago izan hobe dela eta German Castillok erantzun dio bera momentu horretan Altzateko kontzertuan zegoela eta ez zela sentitu ziur, ez dela normala 4 guardia zibil sartzea jendearen artean egin zuten moduan.

Bozketa egin dute eta hona hemen emaitza:

- Aldeko botoak: 9 (6 EH Bildu eta 3 Herrirako)
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 2 (Herrirako 1 eta UPN 1)

Hori dela eta, mozioa onartu dute eta hauxe da testua:

Euskal Herria, Europako polizia eta indar armatu ratorik altuena duen herria da. Kalkuluen arabera, lurralde osoan 23.000 efektibo daude, 3.000.000 biztanle duen eremu batean. Europako erakundeek aholkatzen duten estatistiken arabera, 6.000 polizi efektibo izan beharko luke, beraz 17.000 soberan. Honek gainera, kostu ekonomiko izugarria du, 1.500 miloi euro ingurukoa urteko, zuzenean edo kupo moduan euskaldunok ordaintzen duguna.

Bertako polizia indarrez gain, Estatueta indar armatu eta polizialen presentzia izugarria da. Hamarka luzeetan bizi izan dugun gatazka armatuaren baitan, espainiar zein frantziar indar armatuak herri honetan izan duten presentzia biderkatu egin da. Bost urte luze badira, Aieteko Adierazpenaren baitan gatazka armatua herri honetatik desagertu zenetik. Hala ere, espainiar zein frantziar indarren presentziak bere horretan jarraitzen du. Inolako logikarik gabe burutzen dituzten funtzioak bikoizteaz gainera, egunerokoak dira oraindik hiritarren eskubideak justifikaziorik gabe murrizten zaizkien kasuak, errepideetako kontrolak, identifikazioak, jazarpenak... Euskal Herritarron gehiengoak iraganeko orri hori gainditu nahi duen honetan desmilitarizazioaren eremuan urratsak emateko garaia iritsi da. Euskal eragile eta instituzioek bat egin behar dute beren jardun politiko eta instituzionalarekin norabide horretan.

Modu mailakatuan Euskal Herritik Estatuko Segurtasun Indarren erretiratzea beharrezkoa ikusten dugu. Era berean, herritarren babes eta zerbitzu lanak Euskal Poliziek betetzea da eman beharreko urratsaren beste atala.

Atalka egin beharreko bide horretan, Estatuko Segurtasun Indarren kopuru eta funtzioa gaur egun indarrean dagoen legedira egokituko da. Iraganen geratu diren egoerak ezin dira aitzakia izan, gaur egun gure herrian dagoen indar armatuen dentsitatea mantentzeko. Gaur egunean indarrean dagoen

8.- MOCIÓN, ACTITUD DE LA GUARDIA CIVIL EN FIESTAS DE ALTZATE.

El Alcalde lee el texto de la moción. Tras ello se realizan algunas intervenciones sobre la idoneidad o no de la actitud de la Guardia Civil en las fiestas de Alzate.

Juan Losa manifiesta que cuanto más seguridad es mejor y Germán Castillo le contesta que él se encontraba en ese momento en el concierto de Alzate y no se sintió seguro, no es normal que 4 guardias civiles pasaran entre la gente del modo que lo hicieron.

Realizada la votación resulta lo siguiente:

- Votos a favor: 9 (6 EH Bildu y 3 Herrirako).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 2 (Herrirako 1, UPN 1).

Por lo que se aprueba la moción con el texto que se transcribe a continuación:

legeriaren arabera, eta modu progresiboan Ertzaintzak eta Nafarroako Foruzaingoak beren gain hartuko dituzte herritarren babes eta zerbitzu lanak, dagokien mailan herri bakoitzeko Udaltzainekin batera.

Hau guztia kontutan izanik, Berako EH BILDUK, honako ebazpen proposamena aurkezten dio Osoko Udal Batzarrari, bertan eztabaidatua eta onartua izan dadin:

1.- Udal honek, pasa den larunbatean, Ekainak 10, Altzateko bestetan Guardia Zibilak erakutsitako jarrera salatzen du. Inolako beharrik gabe, gauerdian, jendea bestan zegoela haien artetik ibili ziren guardia zibilak uniforme eta guzti, arrisku egoera larria sortuz. Ez dugu horrelakorik berriz errepikatzerik nahi.

2.- Udal honek, Espainiako Policía Nacional, Guardia Zibil eta Espainiako Armadaren errepliege osoa aldarrikatzen du.

3.- Udal honek, hartutako erabaki honen berri emango die herritarrei, Berako kuartelari, Nafarroako Gobernuari eta Estatuak Nafarroan duen Delegaritzari.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.

9.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

Ez dira burutu.

No se producen.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:35etan.

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 20:35 horas.

O.E. ALKATEA/ V.B. EL ALCALDE
Josu Irtzoki Agirre

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta